

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onetsi egin ziren 2024an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko, hiria kanpoan sustatzeko eta produktu eta esperientzia turistiko berriak sustatzeko laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak

BDNS(Identif.): 769109.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/769109>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehen. Xedea

Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzearekin, hiria kanpoan sustatzearekin eta produktu eta esperientzia turistiko berriak sustatzearekin lotutako jarduerak egiteko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hiru dirulaguntza-ildotan banatuko da deialdia:

- Vitoria-Gasteiz egoitzatzat izango duten biltzarrak edo ekitaldiak antolatzea.
- Vitoria-Gasteizen egiten diren eta hiria turismo-helmuga jasangarri gisa identifikatzen duten ekitaldiak kanpoan sustatzea.
- Hiria turismo-helmuga jasangarri gisa sustatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortzea eta sustatzea.

Bigarrena. Onuradunak

Pertsona fisiko eta juridikoak eta legez eraturako entitateak, edozein forma juridiko dutela ere, egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen dutenak (1. eta 2. ildoetan ez da derrigorrezkoa izango egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen izatea, dirulaguntzaren xedeak hiriko sektore turistikorako interes berezia duela uste bada edo sektore horrekin zuzenean lotuta badago, eta gutxienez 300 pertsona bertaratzen badira, estatuko edo nazioarteko jatorria badu, gutxienez 2 jardunaldiko iraupena badu eta tokiko 5 hornitzaile kontratatzen badira).

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udaltzarak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko maiatzaren 17an, onetsi egin zituen 2024an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeke, hiria kanpoan sustatzeko eta produktu eta esperientzia turistikoko berriak sustatzeko laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 130.000,00 euroko zuzkidura du, 2024rako onetsitako udal aurrekontuko 08.10.4331.471.04 partidaren kontura (Toki Garapenerako Bulegoa- Hiriaren sustapena). Hiru jarduera,ildotan banatzen da: 70.000,00 euro 1. ildorako, 30.000,00 euro 2. ildorako eta 30.000,00 euro 3. ildorako.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da; diru-laguntzaren gehieneko muga 15.000,00 eurokoa izango da 1. ildoan aurkeztutako proiektu bakoitzerako, eta 5.000,00 eurokoa 2. eta 3. ildoetan aurkeztutako proiektu bakoitzerako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epea igaro arte.

Enpresek eskabide bat egin beharko dute proiektu eta laguntza-ildo bakoitzeko (gehienez bi proiektu ildo bakoitzeko).

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 28a

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ